



### **3. Oñati eta Amerika**

## **SEKUENTZIA DIDAKTIKOA**

*\*Oñati alkarregaz ezaguketako\**

## **3. Oñati eta Amerika**

### **MUINA**

- Helburuak
  - Orokorrak
    - Sekuentzia honen helburua da irakasleak bideratutako elkarrizketa batetik ikasleen interesgune den gai bat ardatz hartuta ikasleen arteko elkarrekintza eta ekiten jardutea ahalbidetuz, beraien gaitasunak ahalik eta gehien garatzea. Horretarako txokolatea aitzakizat hartuta, Oñati eta Amerika lotzen duten gertakizun batzuk landu eta hauek irudikatzen dituzten argazkiak egin beharko dituzte taldeka. Modu honetan Oñati munduan nola eta zergatik kokatzen den ulertuko dute eta hainbat pribilegio zeren truke dugun ere ulertuko dute.
  - Espezifikoak
    - Txokolatearen historia oñatiarra ezagutzea.
    - Norbere historiarekin kritikoa izan behar dela konturatzea.
    - Argazkilaritzaren inguruan gehiago esperimintatzea.
    - Egoera eta sentimenduen adierazpena lantzea irudien bitartez.
    - Idazmena eta zehaztasuna garatzea.
    - Ardurak betetzea.
    - Gauzak lortzeko jendearekin harremanak garatzea.
- Azken xedea edo ekoizpena
  - Azken xedea izango da gela guztiaren artean ikastetxeko beste kideentzako argazki erakusketa bat sortzea, Oñati eta Amerikaren arteko gertakizunak irudikatzen duten argazkiekin.
- Ikaste taldea
  - Bigarren ziklorako pentsatuta dagoen sekuentzia da, printzipioz.

### **SEKUENTZIA DIDAKTIKOA**

## HASIERA FASEA

- **1. jarduera → Txokolateaz zer dakigu?**

- Helburua: Txokolatearen inguruko aurrezagutzak aktibatzea irakasleak hasiko duen elkarrizketa bat oinarri hartuta.

**-Gelara sartuko gara Txokolateixako txokolate tableta batekin.** Galdetuko diegu ea txokolatea gustatzen zaien eta asanbladan eserita, probatzeko zati bana emango diegu. Aprobetxatu genezake esateko, Txokolateixako bultzatzaile den **Anton Azpiazuk esaten duela, txokolatea ez dela murtxikatu behar**, baizik eta ahoan urtzen utzi eta begiak itxita zaporean kontzentratu behar dela; hori probatuko dute eta ea gustatu zaien edo ez esango dute eta zergatik.

**-Txokolate tableta horren atzean zer dagoen galdetuko diegu.** Horretarako osagaien inguruko galderak egingo dizkiegu, osagai bakoitza nondik irteten den, nork lantzen duen, non lantzen den...

-Jarduera hau aurrezagutzak pizteko besterik ez da. Informazio asko ez dute izango, eta gure ardura izango da elkarrizketa bideratzea pistak emanaz. Hala ere, interesgarria da ezjakintasun hori ere balioan jartzea eta horren inguruan hausnartzea. Askotan ez baitugu pentsatu ere egiten jaten dugun horrek zer historia duen, zer bidaia egin duen... gure ahora heltzeko. Ezjakintasun hori gehiago jakiteko irrika pizteko erabiliko dugu.

-Elkarrizketa horretan irakasleak hainbat input eman beharko ditu gela guztia ondorio komunetara ailegatzeko. Atera behar diren ondorioetako batzuk hauek dira:

- Txokolateak behar dituen osagai gehienak Amerika eta Afrikan ekoizten dira, lurralde pobreetan eta ekoizpen hori esklabutza mota berriekin eramaten da aurrera. Lurralde hauek Ekuatoretik gertuen daudenak dira, kakaoak klima berezia behar duelako hazteko.
- Emakumeek eta haurrek egiten dute ekoizpen lan hori, gehienetan.
- Oñati eta Amerikaren artean historian zehar harremanak izan dira txokolateari esker, besteak beste (hauek nolakoak izan diren aurrerago landuko da).

-Beraz, jarduera honetan bultzatu behar dugu haurrek gauzen jatorriaz ardura apur bat senti dezaten. Izan ere, Oñatin daude orain, baina han jaioko balira? Jendearen azalean jartzeko jarduerar egokia izan liteke hau eta sentsazioak asanbladan partekatzeko une egokia.

- **2. jarduera → Ezjakintasunaren kontzientzia.**

- Helburua: Aurreko ideiak aintzat hartuta, ardura puntu bat sentiaraztea eta ardura hori ekintza bihurtzeko aurreneko pausoa ematea.

-Aurreko jarduerako ideiak oinarritzat hartuz, galdetuko diegu euren ustez, guk bezala, ea jendeak ba ote dakien zein den txokolatearen jatorria. Ea hor atzean zer ezkututzen den... Eta hori jakitea inportantea dela esango diegu.

**-Orduan, ekintzailetasun arima pizten saiatuko gara orain.** *“Zuen ustez guk zerbait egin dezakegu jendearen ezjakintasun hori aldatzeko?”*. Gisa hontako galderekin lortu nahi dena da taldearen ekintzari garrantzia ematea eta errealitatearen eraldaketan parte har dezaketela erakustea. Mundua aldatzea zaila edo inposiblea dela jakin badakigu, baina Metrokoadroka sormen kolektiboak euren sormen lan batean esaten duenez, **“ezin badut mundua aldatu, metro koadro bat aldatuko dut; eta ezin badut metrokoadro bat aldatu, metro koadro horretako momentu bat aldatuko dut”**. Modu horretan, nahi edo ez, errealitatearen zati bat aldatzen ariko gara eta horrek bere garrantzia du, mundua metro koadroz eta momentz josita dagoelako. Hori ikustarazi behar diegu haurrei; ez direla hautsa, badirela nor, subjektuak direla eta besteengan eragin ahal dutela.

-Hau haurren buruan eta giroan errotuta, zentzua emango diegu proiektu honetan egingo dugun guztiari. Honek zer forma hartuko duen hurrengo jardueran zehaztuko dugu.

- **3. jarduera → Museo bat, ideia bikaina!**

- Helburua: Proiektua zein izango den zehaztea, eman beharreko pausoak argitzea eta lanean hasteko taldeak egitea.

-Gauzak egiteko grina hori piztuta, proiektuaren norabidea zehaztu behar dugu jarduera honetan. **Txokolatearen inguruko gertaerak, Oñati eta Amerikaren inguruko gertaerak... argazkietan bil ditzakegu eta horrekin museo bat sortu ikastetxeko gela batean!**

-Beraz, proposamena hau litzateke zehazki: Hurrek Oñati eta Amerika lotzen duen txokolatearekin lotutako gai bat landuko dute txostentxo bat irakurriz. Ondoren txosten hori irudi baten bidez adierazteko lanketa bat egingo dute. Gero, argazkiak aterako dituzte eta ondoren, irudia azalduko duen testu motz bat idatziko dute, museoan irudiaren ondoan jartzeko.

**-Hau asanbladan argi utzita, taldeak egiteko prest gaude.** Taldeak egiteko dinamika diferente bat “turistena” izan daiteke. Guztira 4 edo 5 laguneko taldeak egingo ditugu (adibide honetan 5ekoak egingo ditugu). Ba, hasteko, haurrei esango diegu **turisten jolasa** egingo dugula eta beraiek turistak izango direla eta gu argazkilariak. Guk esango dugu zenbat argazki egingo ditugun eta haiek kopuru horren arabera taldekatu egin beharko dira. Adibidez, “argazki bat” ohiukatzen badugu, denak batera jarri beharko dira argazkia ateratzeko. “Hiru argazki” oihukatzen badugu gela guztia kopuru berdineko hiru taldetan banatuko da. Eta 25 kideko gela bat badugu, esango dugun azken kopurua “bost argazki”

izango da; bost argazkitan bost kide egongo direlako. Ba, horrela, taldeak eginda geratuko lirateke.

- **4. jarduera → Gertakariak taldeka.**

- Helburua: Taldeka txokolatearen inguruko gertakariak aztertzea eta lantzea.

**-Jarduera honetan gaiak aurkeztuko dizkiegu taldetan jarrita daudela.** Zuzenean egin daiteke edo gaian sartzeko, irakasleak "istorio" bat konta lezake. Lope Agirreren istorioa (jaisteko) da horretarako pentsatuta dagoena, proposamen modura. Bere bizitzaren gora-beherak kontatzen ditu eta Oñati eta Amerikaren loturatako bat ikusteko baliagarria izan daiteke. Beraz, irakasleak hau kontatzea erabakitzen badu, hau egingo du lehenik eta gero gaiak aurkeztuko ditu.

**-Taldeen txokolatearekin lotutako gaiak jorratuko dituzte. Horretarako bost orrialdeko txosten bat izango dute eta talde bakoitzak horretako bat landu beharko dute** (irakasleak erabakiko du landu nahi duenaren arabera). Beraz, hauek irakurri eta komentatu egingo dituzte. Zerbait ulertzen ez badute irakaslearen laguntza izango dute hori argitzeko.

-Behin denek irakurrita eta landuta nahi izanez gero, talde bakoitzak, talde handiak komentatuko du jasotakoaren laburpena, denek informazio berdintsua izan dezaten.

## **GARAPEN FASEA**

- **5. Jarduera → Nola adierazi argazki batean?**

- Helburua: Landu dituzten gaiak argazki batera eramateko sormen-lana egitea.

**-Jarduera honetan gertakari hori argazki batera eraman beharko dute.** Horretarako papera, arkatza eta irudimenaren laguntzaz, argazkia izango denaren ideiak marraztuko dituzte. Ideiak hartzeko, interneten, aldizkaritan... begira dezakete.

-Beraz, **erabaki beharko dute zer ekintza irudikatuko duten**, nork eta nola egingo duen, zer arropa behar den, zer material, zerespaziotan egingo duten argazkia... Erabaki hauek denek artean adostu beharko dituzte.

-Eta behin erabakiak hartuta, horretarako diseinatu den **txantilioia beteko dute** (jaisteko), adostutako informazioarekin betez. Modu honetan egin nahi dutenaren ideia garbi bat izango dute eta ikusiko dute argazki baten atzean zer lan dagoen (hori irakasleak komenta dezake lanean ari diren bitartean). Izan ere, aurretik txokolatearekin egin dugu, baina berdina gertatzen da argazkiekin, artelanekin, abestiekin...

-Honez gain, zehaztu beharko dute norik ekarriko duen zer eta **bakoitzak dagokion ardura hartuko du**. Behin hau eginda, prest egongo dira adostutako egunean argazki horiek ateratzeko. Hurrengo jardueran emango dugu horren berri.

## EKOIZPEN FASEA

- **6. jarduera → Produkzio lana.**

- Helburua: Txantiloian jasotakoa lortzea izango da helburua hezkuntza komunitatearekin harremanetan jarriz. Lokalizaziotara bisitak egitea ere jarduera honen parte izango da.

-Jarduera honetan hurrek egin behar dutena da argazkia egiteko beharrezko duten guztia lortzea. Horretarako hezkuntza komunitateari emango diogu indarra eta hurrek hauekin harremanak egin ditzaten egoerak erraztuko dizkiegu. Familiakoak, lagunak, eskolako idazkaritzeko kideak, garbitzaileak, jangelakoak, herriko dendetakoak... saiatuko gara behar duten guztia lortzeko ahalik eta jende gehienarekin kontaktuan jartzea.

-Honen plangintza gelan bertan egin daiteke, nahiz eta eskola orduz kanpo garatu jardueraren beste zatia. Modu honetan, eskolak harreman sareak sortu eta dituenak sendotu egin ditzake.

-Hurrei esango diegu hurrengo saiorako beharrezko kontu denak ekartzeko, argazkia orduan aterako baitugu.

- **7. jarduera → Argazkiak ateratzera!**

- Helburua: Argazkiak ateratzea eta argazki ondoan jartzeko testutxo idaztea.

-Heldu da argazkia ateratzeko momentua. Talde bakoitzak argi edukiko du buruan zer irudikatu behar duen eta nola. Beraz, taldeka denbora utziko diegu modu autonomoan lan egin dezaten. Edozein behar sortuz gero, irakaslearen laguntza izango dute.

-Behin argazkia ateratzen dutenean eta dena jaso eta ordenatu ostean -hori ere bada eta argazkilaritzaren parte-, irudi hori azalduko duen testutxo bat idatziko dute. Testu horrek museotan koadroen ondoan jartzen diren plaken funtzioa izango du. Beraz, izenburua idatzi beharko da lehenik, eta ostean gertakari horren azalpen oso labur bat idatziko dute horretarako propio sortutako txantiloian. Azken hau ere, taldean egingo dute.

-Eta honen ostean argazkiak inprimatuko dituzte!

- **8. Jarduera → Museoa eskolan!**

- Helburua: Museoa muntatu eta bisitariak jasotzeko prest utzi aurkezpen eguna finkatuta.

-Jarduera honetan denok batera emango diote museoari forma. Argazkiak zintzilikatuko dituzte, gela jantziko dute... finean, gela museo bihurtuko dute. Bitartean aurkezpenaren eguna ere finkatuko dute eta horren deialdia zabalduko dute. Kasu honetan beste eskolako kide batzuei gonbidapena luzatzea proposatzen da, gonbidatu nahi diren taldeen geletara bisita eginez.

-Aurkezpenaren egunean ikasleek harrera egingo diete etortzen diren guztiei eta behin dena hasteko moduan dagoenean, ikasleak euren koadroak aurkezten hasiko dira. Argazkiaren izena aipatuko dute lehenik, eta gero zer gertaeraren berri ematen duen eta zer lan egin duten emaitza horretara heltzeko.

.-Aurkezpena bukatzen denean, museoa egun batzuetan horrela utziko dugu, nahi duenak bisita egiteko aukera izan dezan.

- **9. Jarduera → Txokolatearen bidea.**

- Helburua: Prozesu guztia burura ekarri eta irudien bitartez berau ebaluatzea.

-Jarduera honetan prozesu guztiaren ebaluaketa egingo dugu. Horretarako ikasle bakoitzak etxetik ekarri beharko du bere argazki bat, zeinak adierazten duen zer suposatu duen proiektu honek berarentzat.

-Ebaluazioarekin hasi aurretik, denok asanbladan eserita, irakasleak ondo azalduko du zein izan den prozesua; nola txokolate tableta batek Oñati eta Amerikaren arteko harremanetara eramán gaituen.

-Ondoren, bakoitzak bere argazkia eskutan duelarik errondan hasiko dira esplikatzén zer suposatu duen proiektuak eurentzat eta hori adierazteko zergatik ekarri duten argazki hori. Mota honetako jarduerekin hurrek euren oroitzapenak ere partekatuko dituzte gelakideen arteko ezagutza areagotuz.

-Eta azkenik galdetuko diegu ea zer ikasi duten txokolatearen inguruan. Eta irakasleak hau borobiltzeko, aipatu lezake txokolate tableta bat jateak pribilegiatu egiten gaituela mundu honetan. Horren atzean eskubide urraketak daudelako, besteak beste. Eta gaur egungo Oñatik daukan aberastasunaren zati haundi bat beste batzuen izerdiaren kontura irabazia dela ere ezin dezakegu ahaztu. Zer dago daukagunaren atzean? Zer dago gure argazkiaren atzean?

## **ERANSKINAK (FITXAK eta JAKINGARRIAK)**

Puntu honetan, gaiari lotutako jakingarri batzuk eta Txokolateixako Anton Azpiazurekin partekatutako hausnarketaxo batzuk dituzue, erabilgarri izango zaizkizuelakoan. Honez gain, aipatu behar da oso gomendagarria dela sekuentzia hau borobiltzeko Txokolateixara bisita bat egitea, bertako azalpenekin osatuko dute guztia. Gainera, bertakoei hurrek eurek erakutsi ahal diete egin dutena.

### OHARRAK ETA HAUSNARKETAK:

#### **-Rodrigo Mercado de Zuazola apaiz-ikasketak egin zituen. Zergatik?**

Garai hartan, XVI-XVII. mendean jende asko baserrietan bizi zen eta baserrietan jaiotzen zen lehen gizonak maiorazgoa jasotzen zuen oinordetzan.

Familiako bigarren semeek apaiz-ikasketak egiten zituzten. Hirugarrenek lanbide bat ikasten zuten dirua irabazi ahal izateko (arotz, zapatari...) eta hortik aurrera Ameriketara joatean ziren bertan dirua egitera. Askotan bertako esku-lan merkeaz eta esklabutzaz aprobetxatuz. Rodrigoren kasuan, maiorazgoa ez zuenez izango, apaiz-ikasketak egin zituen eta ostean espainia aldera joan zen beste ikasketa batzuk egitera.

**-ESKRIBAUAK:** Eskribauak, herri funtzionarioak ziren, gaur eguneko notarioen antzekoak. Bi aldeen arteko itunak, salmentak, akordioak, betebeharrak... eskrituretan (= idazkiak) jasotzen zituzten, eta beraien sinadura egiaren ikurra zen. Inoiz udalaren erabakiak ere jasotzen zituzten, idazkaririk ez zenean.

**-Esklabutzaren harira,** hausnarketak egin daitezke. Inor ez dago esklabutzaren alde, baina adibidez, ikusi daigun Oñatin zer gertatu den sastreekin. Lehen sastreak gizonak ziren eta haien emakumeak sastreen lanerako ezinbesteko ziren jostunak. Oñatin lan dezente zegoenez, emakumeak lan mundura sartzeko aukera izan zuten eta euren dirua irabazteko aukera. Bide horretan, emakume sastreak aurkitzen has gaitzke. Pentsa dezakegu berdintasunean pauso bat aurrera eman dugula; baina nork egiten du orain emakume horiek egiten zuten lana? Bada, beste herrialde batzuetako emakume pobreagoek. Kate bat da.

**-JUAN DE OÑATE**ren pasadizoak aurki ditzakezue hemen. Juan de Oñateren aita zen Oñatikoa, bera Amerikan jaio zen. Konkistatzailea zen eta bitxikeria eder bat kontatzen dute bertso hauek:

- <http://www.susa-literatura.eus/liburuak/poes7848> (Kirmen Uriberen bertsoak Juan de Oñateren inguruan)
- <https://www.youtube.com/watch?v=J83L2xKGEHE> (Don Juanen bertsoak - abestia)

### **BIBLIOGRAFIA:**



-Azpiazu Lanz, A. (2007). *Kakaoaren iluntasuna eta txokolatearen magia Oñatin*. Gertu inprimategia. Oñati.

-(s.d). Lope Agirre. *wikipedia.org*. Berreskuratua: [https://eu.wikipedia.org/wiki/Lope\\_Agirre](https://eu.wikipedia.org/wiki/Lope_Agirre)

-Monzón, A. (2017). Lope de Aguirre, el loco que quiso romper el imperio español. *Elindependiente.com*. Berreskuratua: <https://www.elindependiente.com/tendencias/2017/11/05/lope-aguirre-loco-quiso-romper-imperio-espanol/>

-Hainbat egile (2018an igoa). Lope de Aguirre, documental. Berreskuratua: <https://www.youtube.com/watch?v=aIWAcA0-BcA>

-Fornells, M. (1998). Rodrigo Mercado de Zuazola, un mecenas del Renacimiento guipuzcoano. *Euskomedia*. Berreskuratua: <https://core.ac.uk/download/pdf/11495998.pdf>